



*EOSen 2015-2016
abonu denboraldia*
Irailaren 24tik aurrera.

Jotzeko irrikan

JUN MÄRKL zuzendari titularraren hitzak hauexek dira, Euskadiko Orkestraren denboraldi berria laburbiltzeko: “Asko dugu eskaintzeko: musika oso interesgarria eta sasoian dagoen orkestra. Zuentzat jotzeko irrikan gaude”. Eta egia da; errepaso bat ematen badiogu abonu-programazioari, ikusten dugu behar diren osagaiak badaudela taxuzko egitarauak eraikitzeko, alde batetik. Eta bestetik, fedea ematen dut orkestrak momentu ona bizi duela, kontuan hartzen baditugu azkeneko saioak orain dela gutxi ospatutako Musika Hamabostaldian: bai *Toscan*, bai Usandizagaren *Mendi-mendiyan* operan, orkestraren aktuazio sendoa faktore garrantzitsua izan zen emanaldien arrakastan.

Programazioan sartuz, sinfonismo handiak leku garrantzitsu eta bariatua izango du denboraldi honetan: Bruckner-en pare bat entzuteko aukera izango dugu, laugarrena eta zazpigarrena; Txaiikovskiren *Patetika* ederra; Beethovenen bosgarren fama-tua, *Patuarena*. Eta Mahler, Brahms eta Prokofieven sinfoniak ere disfrutatuko ditugu. Bestalde, orkestra eta bakarlarienezako kontzertu interesgarriak aurkitzen ditugu: Beethovenen laugarrena, pianorako, Tamar Beraia pianista georgiar gaztearen eskutik; Ravelen sol maiorreko kontzertu ederra, Ingrid Fli-ter piano jole argentinarra bakarlaria izanik; Alban Bergen biolinerako kontzertua, Viviane Hagner biolinista alemaniarrekin, edo Xostakovitxen biolontxelorako bigarren kontzertua, besteak beste.

Ahots ederrek protagonismoa izango dute saio batzuetan. Markus Nieminen baritonoa eta Majukka Tepponen sopranoa, biak finlandiarrak, bakarlari proposak izango dira Sibeliusen *Kullervo* suitea interpretatzeko, orkestraren lehenengo saioan; Raquel Lojendio sopranoa, Clara Mouriz mezzoa



eta Zoe Nicolaidou sopranoa ere entzungo ditugu denboraldian zehar.

Balletarekin galdu ezin den zita prestatu dute. Otsailean *Ederra eta piztia* dantza ikuskizuna izango dugu gure artean, Malandain Ballet Biarritz taldea protagonista izanik, Txaiikovskiren musikarekin.

Gaur egun konposatzen den musika gutxi izango dugu, hori egia da. Baina apustu interesgarriak egingo ditu orkestrak: Pascal Gaigneren *Hypnos variation* obra entzuteko aukera izango dugu, eta harro sentitzen naiz esaten Iñaki Estradaren lan bat estreinatuko dela *...laino argidun artean...* izenekoa. Harrotasuna nondik? Estrada nire ikaslea izan zelako Hernaniko Kontserbatorioan, orain dela urte asko. Uste dut musikaren birusa nolabait inokulatu niola, eta pozik nago orain bere talentua garatu duela ikusita.

Ikusten dugun bezala, programazio gustagarri eta interesgarria eskaintzen da aurtengo denboraldian. Baina inportanteena publikoak poltsikoan sartzeko azaltzen duten gogo hori da. Irailaren 24an izango da lehenengo saioa, Gasteizen; 25ean Iruñean; 28 eta 29an Donostian; eta 30ean Bilbon. Ez galdu. ■

Montserrat Auzmendi